

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

221/2020 Foru Agindua, irailaren 25ekoa, hasierako onespena ematen diona honako proiektu honen interes publikoa adierazteko espedienteari: Amurrioko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Lezaman, Txibiarteko gainean dagoen telekomunikazioetako zentro igorlea handitu eta eraberritzeko proiektua, Itelazpi SAK sustatua

2020ko irailaren 1ean, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean sartu da Amurrioko Udaleko Idazkaritza Nagusiak igorritako komunikazio bat, zeinean jasotzen baita tokiko gobernu batzarrak 2020ko uztailaren 23ko bilkuran hartutako erabakia. Hona hemen erabaki horren edukia, laburbilduta:

Itelazpi SAK, 2018ko uztailaren 30ean, obra lizentziaren eskaera aurkeztu zion Amurrioko Udalari, Txibiarte telekomunikazioetarako zentro igorlea berritzeko obretarako. Hain zuzen, lehendik zegoen komunikazio dorrea/antena ordeztu, instalazioen etxola teknikoa handitu eta hesitutako perimetroa zabaldu nahi ziren obra horien bidez. Jarduketa udalerrri horretako lurzoru urbanizaezinean egin behar da, eta eskatu du foru aldundi honetan izapidetu dadila onura publikoaren eta interes sozialaren adierazpena. Jarduketan memoria eta proiektu teknikoa aurkeztu ditu.

Amurrioko Udaleko tokiko gobernu batzarrak, 2020ko maiatzaren 21ean, erabaki zuen ezeste Itelazpi eskatutako lizentzia eskaera, jotzen zuelako eskaera ez zettorrela bat instalazioa hartzen duen baso babeseko lurzoru urbanizaezinen erabilerekin eta antolaketa baldintzekin. Ezespenez erabazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen Itelazpi SAK, alegatuz Udalbatzak 2020ko apirilaren 30ean onetsi zuela Txibiarteko dermioaren baso babesaren mugaketako huts materiala zuzentzeko espedientea (zuzenketa 2020ko maiatzaren 29ko ALHAOn argitaratu zen).

Udal arkitektoak 2020ko ekainaren 29an egindako txostena ere badago espedientean, zeinean jasotzen baita instalazioak dauden lurzatiak ez dituela betetzen baso babeseko lurzoruaren baldintzak, plangintza araudian jaso bezala; kokapen hura, egiazki, mendi urriko eremua da, non baitaude zuhaixka espezieak, sastrakak edo espezie belarkarak, baina ez zuhaiztirik. Kontuan hartuta plangintzan ezarritako kalifikazioa okerra zela, huts materiala zuzentzeko espedientea abiarazi zen ofizioz.

Aurreko hori ikusita, udalaren txostenean jaso da jarduera hartzen duen lurzoru landa lurzoru urbanizaezin orokor gisa dagoela kalifikatuta indarreko plangintzan (2-A plano, "Erabilera Orokorra – Lurraldearen egitura orokorra eta organikoa"; zuzendua). Aplikagarri zaizkio udalerriko arau subsidiarioen 242. artikuluan (landakoa, orokorra) ezarritako antolaketa eta erabilerak; lurzoru kategoria horretan, baimendu daitezke landa ingurunean jarri behar diren onura publikoko eta interes sozialeko eraikuntzak eta instalazioak. Txostenean ondorioztatzen da telekomunikazio zerbitzuen base bat instalatzeak betetzen dituela indarreko landa lurzoru urbanizaezin orokorraren 242. artikuluan ezarritako erabilerak eta antolaketa baldintza oinarrikoak.

Horiek horrela, Amurrioko Udaleko tokiko gobernu batzarrak erabaki du baiestea Itelazpi SAK aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, eta eraginik gabe uztea 2020ko maiatzaren 21eko erabakia, izapidetzeko onartzea telekomunikazio zentroa handitzeko obretarako udal lizentziaren eskaera eta espedientea bidaltzea AFAko Ingurumen eta Hirigintza Sailari, proiektuaren interes publikoaren adierazpena eskatzeko, lizentzia eman aurretik.

Proiektua dagoen lurzatiak erreferentzia hau dauka katastroan: 020502110A00000000IW.

Gaur egun, honako hauek daude: etxola tekniko nagusi bat, bigarren mailako beste bat, antena dorre bat eta kanpoaldean eremu hesitua. Bi gelen barruan daude komunikazioak igortzeko zentroa funtzionarazteko beharrezkoak diren instalazioak eta, haiez gain, kanpoaldean beste instalazio batzuk daude, eremu hesituaren barruan. Gaur egungo zentroaren azalera, guztira, 86,09 m² da. Proiektuan jasotzen da eremu hesituaren alboan beste antena dorre bat eta, haren alboan, beste etxola tekniko bat daudela. Proiektuan aipatzen den esparru nagusia eraberritu ondoren, Itelazpi SAK proposatzen du instalatutako antena dorre berriak har dezala bere gain bigarren dorre horrek ematen duen zerbitzua, etxolarekin batera kendu ahal izateko.

Proposatutako jarduketa da bigarren mailako etxola eraistea eta etxola nagusia handitzea, 42,60m²-ko zabaltze azalerarekin. Etxolak hiru gela independente izango ditu, solairu bakarrean, eta bi isurkiko estalkia. Egingo den eraikinak 58,34 m²-ko azalera eraikia izango du, eta proiektuan jaso da multzo osoaren eremu hesituaren handitzeak guztira 138,38 m²-ko azalera hartuko duela. Dorre berriaren zehaztapen teknikoak jasotzen dituen proiektua aurkeztu da. Dorrea 30 metro luze izango da, eta zimenduak egiteko hormigoï trinkoa erabiliko da, masan.

Espedientean ageri da Nekazaritza Sailaren apirilaren 23ko 199/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez ebazten baita "Ladera de Lezama" izeneko onura publikoko 66 mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea. Foru agindu horren bidez, baimena ematen da 138,38 m²-ko azalera okupatzeko (zentroaren handitzea barnean dela) Amurrioko udalerriko 5 poligonoko 211 zenbakiko lurzatian, eta xedatzen da onespena ematen zaiola jabari publikoaren (OPko 66 mendia) erabilera pribatiboa egiteko ematen den administrazio emakidari; ezartzen da hasiera batean 30 urtekoa izango dela okupazio epea, zeina gehienez ere 75 urte arte berrizta baitaiteke, bai eta kanon bat ere.

Amurrioko Udalak hartutako erabakiaren edukia kontuan hartuz, izapidetu behar da proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeï egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onspena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onspenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea honako proiektu honen interes publikoaren adierazpenari buruzko espedienteari: Amurrioko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Lezaman (katastro erreferentzia:020502110A00000000IW),Txibiarteko gainean dagoen telekomunikazioetako zentro igorlea handitu eta eraberritzeko proiektua, Itelazpi SAK sustatua.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeï egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesa dutenek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta haren aurka ezin da errekursorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO